



2008 URTEKO TXOSTENA

*ALERTAK: ELIKAGAIAK, ANIMALIEN ELIKAGAIAK ETA
ANIMALIEN GAIXOTASUNAK*

elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

AURKIBIDEA

1. ANIMALIEN ELIKAGAIK

- 1.1. Jakinarazpenak sailkatzea
- 1.2. Jakinarazpenetan antzemandako arriskuak
- 1.3. Inplikaturako produktu mota
- 1.4. Jakinarazpenetan inplikaturako lehengaiak
- 1.5. 2006. eta 2008. urteen arteko konparazioa

2. ELIKAGAIK

- 2.1. Jakinarazpenetan antzemandako arriskuak
- 2.2. Jakinarazitako arriskuen jatorria
- 2.3. Antzemandako arriskuak
- 2.4. 2006. eta 2008. urteen arteko konparazioa

3. ANIMALIEN GAIXOTASUNAK

- 3.1. Jakinarazitako gaixotasunak
- 3.2. Jakinarazpenen jatorria
- 3.3. Gaixotasunen garapena







**ANIMALIEN
ELIKAGAIAK**

1.1. JAKINARAZPENAK SAILKATZEA

2008. urtean animalien elikagaiei buruzko 182 jakinarazpen izan dira: horietako 14 alertak izan dira, 129 informazio-jakinazpenak eta 39 mugan egin diren ukapenak.




RASFFen bidez jasotako jakinarazpenei dagokionez, kopurua oso antzekoa izan da urteko hiru lauhilekoetan.



Jatorriko herrialdeei dagokienez, hirugarren herrialdeek argitaratu dituzte jakinarazpen gehien (%52), eta horien artean honako hauek nabarmendu behar ditugu: Brasil, India, Ukraina, Txina eta AEB.


Txinan, melaninak 6 jakinarazpen eragin ditu hirugarren lauhilekoan (horietako 4 soja-irinak). Brasilen, berriz, monensinaren presentziagatik azukre kanaberaren legamiak eragin ditu jakinarazpen gehien. Eta, azkenik, AEBetan Europan baimendu gabeko genetikoki eraldatutako organismoak (OMGak) eta *Salmonella* edo enterobakteriak zituzten zakurrentzako mastekagarriak eragin dituzte jakinarazpenak.



1.2. JAKINARAZPENETAN ANTZEMANDAKO ARRISKUAK

2008an antzemandako arrisku gehienak mikrobiologikoak izan dira (%54), eta aipagarriak dira beste izendatutako arriskuak (%24): baimendu gabeko gehigarriak, gorputz arrotzak eta beste.


Neurri apalagoan, mikotoxinak (%8) eta dioxinak (%6) antzeman dira.



Arrisku mikrobiologikoei dagokienez, gehienak *Salmonellak* eragin ditu, enterobakteriek eragindako zortzi jakinarazpen izan ezik. *Salmonella* antzeman den lehengaien artean soja-irina nabarmendu behar dugu, 24 jakinarazpenetan agertu baita; 6 jakinarazpenetan azaldu da ekilore-irina eta 3tan arrain-irina.


Dioxinak, batik bat, arrain-irinetan (3) antzeman dira.

Mikotoxinei dagokienez, kakahueteak eta artoa izan dira jakinarazpen gehienetan inplikaturako lehengaiak. Lauhilekoka aztertuz gero, arrisku mikrobiologikoei buruzko jakinarazpenek behera egin dute: lehenengo lauhilekoan 43, eta azkenekoan 25.




1.3. INPLIKATUTAKO PRODUKTU MOTAK

Produktuka aztertuz gero, aldiz, lehengaiak eragin dituzte jakinarazpenen %82, pentsuek %11 eta aurre-nahasketek %7.




Jakinarazpenetan inplikaturiko produktu moten garapena lauhilekoka alderatuz, argi ikusten da lehengaietan antzemandako arrisku kopurua antzekoa dela hiru lauhilekoetan.

Pentsuek eragindako jakinarazpenek behera egin dute lauhileko guztietan; eta gehigarriek eta aurre-nahasketek eragindakoek ere behera egin dute urte barruan.



1.4. JAKINARAZPENETAN INPLIKATURAKO LEHENGAIK


Lehengaien artean aipatzekoak dira soja-irina (28 jakinarazpen), koltza-irina (14) eta ekilore-irina (8). Azpimarratu behar da, era berean, zakurrentzako mastekagarriak 16 jakinarazpenetan antzeman zirela.




Soja-irinari eta koltza-irinari dagokienez, *Salmonella* izan da gehienetan antzeman den arriskua. Bigarren lauhilekoan Brasileko eta Argentinako soja-irinetan *Salmonellak* 11 jakinarazpen eragin ditu hain zuzen.

1.5. 2006. eta 2008. URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

Jakinarazpenen kopuruaren bilakaerari dagokionez, 2007. urtean, 169 jakinarazpen jaso ziren; 2008. urtean, aldiz, 182. Alerta kopuruak behera egin du 2008an; eta informazio-jakinarazpenek, ostera, gora egin dute.



Identifikatutako arriskuei dagokienez, 2006., 2007. eta 2008. urteetako kopurua oso antzekoa izan da. Nabarmendu egin behar dugu mikrobiologia arriskuen eragina, betiere antzemandako gainontzeko arriskuekin alderatuz gero.






ELIKAGAIAK

2. ELIKAGAIK

2.1. JAKINARAZPENETAN ANTZEMANDAKO ARRISKUAK


2008an Alerta Azkarra Sistemaren (RASFF) bidez **3021** alerta eta informazio-jakinazpen jaso dira.



2.2. JAKINARAZITAKO ARRISKUEN JATORRIA


Kutsatutako produktuen jatorriari dagokionez, aipatu behar da Asiak (%53) eta Europak (%30) eragin dituztela jakinazpen gehienak. Hala ere, Asiako jakinazpen kopuruak gora egin du, eta behera Europakoak.

Honako hauek izan dira urteko batez bestekoak:



Iturria: Europako Batzordea (RASFF)


Ondorengo hau izan da arriskuen jatorriaren garapena lauhilekoka:




2.3. ANTZEMANDAKO ARRISKUAK

Aurreko urteetan bezalaxe, mikotoxinek eragin dituzte jakinarazpen gehien, nahiz eta murrizten jarraitzen duten. Aurten, kutsadura biologikoa izan da jakinarazpen gehien sortu dituen bigarren taldea; baina, ez dago alderik kutsadura kimikoarekin.


Jarraian azalduko ditugu identifikatutako arriskuei dagozkien portzentajeak eta nolako bilakaera izan duten lauhilekoka:






MIKOTOXINEK eragindako kutsadurari dagokionez, kasu gehienak (**%90,5**) **Aflatoxinek** eragin dituzte. Eta, horrelakoetan, **kakahueteek** kutsadura kasuen **%37** eragin dute. Horren ondotik, **pistatxoa** izan dugu (**%25**). Pistatxo gehienak (%65,5) Iranekoak izan dira. Kakahueteak, aldiz, %49 Txinakoak izan dira.


Hona hemen aflatoxinek eragindako jakinarazpenek 2008. urtean izan duten bilakaera:




KUTSADURA BIOLOGIKOARI dagokionez, jakinarazpenen %19 izan dira, eta talde honetan *Salmonella* sp. nabarmendu behar dugu, kutsadura biologikoen %51 eragin baitu (urteko batez bestekoa). Honako hau izan da kutsadura biologikoen izan duten garapena:




Badira *Salmonella* espezie batzuk giza osasunerako arriskutsuak direnak (*S.typhimurium* eta *S.enteritidis*); baina, horiez gain, badira bestelako *Salmonella* espezie batzuk. Horien artean salmonella exotikoak nabarmendu behar ditugu (%85). Horien ondoren, *S.typhimurium* (%10) eta *S.enteritidis* (%4,5) azpimarratu behar ditugu. Produktu kaltetuei dagokienez, *S.enteritidis*ek oilasko-haragiari eragin dio bereziki (kasuen %85). Kasu gehienetan, %84, Europako produktuak izan dira. *S.typhimurium*ek, aldiz, Europako txerri-haragiari eragin dio (kasuen %100).



KUTSADURA KIMIKOARI dagokionez, jakinarazpenen %17 izan dira. Koloragarriek eta gehigarriek alerten eta jakinarazpenen %40,5 eragin dituzte. Talde horren barruan gozokiak, ozpinkiak eta elikagai gehigarriak izan ditugu, eta denek izan dituzte antzeko portzentajeak. Era berean, melanina azpimarratu behar dugu. Melanina iruzurrez erabiltzen den substantzia kimikoa da, eta Txinan arrisku-iturri berria izan dugu (jakinarazpenen %96). Horrelakoetan, jakinarazpenetan inplikaturik garrantzitsuenak ondoko hauek izan dira: galletak, esnea duten gozokiak, esnekiak eta eratorriak.




Bestalde, METAL ASTUNAK ere aipatu behar ditugu, merkurioa bereziki. Izan ere, murriztu egin da lehenengo lauhilekotik (kasuen %60,5) azken lauhilekora (kasuen %46,5). Batez ere marrazoari eta ezpata arrainari eragin die (%73).




2.4. 2006-2008 URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

Azken hiru urteak alderatuz gero, jasotako alertak zein jakinarazpenak ugaritu egin dira: 2006. urtean 2409 jaso ziren; 2008. urtean, berriz, 3021. Hainbat aldaketa gorabehera, oro har antzeko joerak antzeman dira.



Gehien antzeman diren kutsadura eragileei erreparatzen badiegu, konturatuko gara aflatoxinei dagokienez aurreko urteetako portzentajeari eutsi zaiola, *Salmonella* sp.k jakinarazpen gehiago eragin dituela (batik bat, belar usaintsuetan eta espezieetan) eta koloratzaileen eta baimendu gabeko gehigarrien alerta kopuruak behera egin duela.





**ANIMALIEN
GAIXOTASUNAK**


GAIXOTASUN EPIZOOTIKOAK.

3.1. JAKINARAZITAKO GAIXOTASUNAK


2008. urtean, Albaitaritzako Osasun Alerta Sareak (RASVE) **7.685 fokuren berri** eman du gaixotasun epizootikoei buruz. *Adierazi egin behar da, arazo teknikoak direla eta, azken lauhilekoan ez direla Espainiatik kanpoko hainbat jakinarazpen jaso.

<i>Gaixotasuna/Lauhilekoa</i>	1.a	2.a	3.a	2008. urtea
Mingain Urdin gaixotasuna	4479	368	2145	6992
Zaldien Anemia Infekziosoa	256	89	11	356
Txerri Izurri Klasikoa	91	60	12	163
Behien Entzefalopatia Espongiformea	30	22	13	65
Septizemia Hemorragiko Biral	15	16	2	33
Izokinen Anemia Infekziosoa	4	10	0	14
Newcastle gaixotasuna	10	4	0	14
Oso patogenoa den Hegazti-gripea	10	1	1	12
Patogenotasun eskaseko Hegazti-gripea	6	1	3	10
Zaldien Entzefalomielitisa	0	0	9	9
Nekrosi Hematopoietiko Infekziosoa	3	2	2	7
Txerrien Xixkuko Gaitza	2	3	1	6
Afrikako txerri izurria	3	0	1	4
				7685*

Lauhilekoko garapena ondorengo hau izan da: 1. lauhilekoan 4.909 foku, 2.ean 576 eta 3.ean 2.200.




Gaixotasunei dagokienez, Mingain Urdin gaixotasunak (LA) jakinarazpenen %91 eragin ditu; jarraian, askoz ere jakinarazpen gutxiagorekin, Zaldien Anemia Infekziosoa (4,6).



3.2 JAKINARAZPENEN JATORRIA


RASVEren arabera, Europa Batasuneko herrialde hauek jakinarazi dute foku gehien: Frantziak (4.468 foku) eta Espainiak (2.440 foku).




Iturria: Europako Batzordea (RASVE)

3.3 GAIXOTASUNEN GARAPENA

Europar, arestian aipatu dugun bezalaxe, Mingain Urdin gaixotasunak eragin ditu jakinarazpenen %91. Aipatu behar da urteko lehen hilabeteetan sortu zirela jakinarazpen gehien, udan behera egin zuela jakinarazpen kopuruak eta gora egin zuela, berriro ere, azken lauhilekoan.




Zaldien Anemia Infekziosoa izan da jakinarazpen gehien eragin dituen bigarren gaixotasuna. Hala ere, Mingain Urdin gaixotasunak baino askoz ere jakinarazpen gutxiago eragin ditu. Ondorengo grafikoan adierazten da urteko garapena:




Espainia mailan, Mingain Urdin gaixotasunaren 2.415 fokuren berri eman da:

Asturias	838
Euskadi	400
Kantabria	450
Galizia	227
Gaztela eta Leon	160
Extremadura	153
Katalunia	112
Andaluzia	27
Nafarroa	28
Errioxa	14
Aragoi	4
Valentzia	2
Espainia	2415

Grafiko honetan ikus daiteke urteko bilakaera:



Autonomia Erkidegoari bagazozkio, Asturiasek Mingain Urdin gaixotasunaren 838 foku jakinarazi dizkio RASVERi, Kantabriak 450 eta Euskadik 400.



Iturria: Europako Batzordea (RASVE)